

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2005eko otsailaren 4a / 703. zenbakia



ZIRKO TTIPIA

BIHAR, ZAPATUA, AMAIA UDAL ANTZOKIAN, UMEENDAKO IKUSKIZUNA

ORAIN ETA HEMEN: **JON AGIRRE/7** • **KIROLA: ZUHAITZ EZPELETA ETA ISA CASADO/8**

ARGAZKIAK: ZIRKO TTIPIA. AZALA: ALEX AZKARATE

PROFESIONAL LIBERALEN GIDA/19


KALEINKESTA/ Juen dan astien egin euen edurre dala-eta, holakuetarako preparaute gauz?



GREGORIO LOPEZ
Erretiraue



MARISA DELGADO
Langillie



JUANMA VAZQUEZ
Langillie



XABIER URRA
Langillie



YOLANDA MADINABEITIA
Langillie



LOURDES VIGUERA
Langillie

Erdialdien edurre kentzeko lan gehixau egin daue auzuetan baiño. San Andresen bizi naz, eta Doctor Bañezen edur eta izotz mordue egon da pilletute. Iñok ez dau kentzeko lanik egin.

Neure ustez erdialdie behintzet ondo egon da, ibiltteko moduen. Iguel jentente nagusixek problemak euki dau. Geure tabernako inguruek guk geuk garbittu dou paliekien.

Oso gustora ibili naz, edurre asko gustetan jat-eta, baiñe egixe da nagusixendako lurre oso labankor eta peligruso egon dala. Itxuraz gatz guñxi bota daue, izotza egon dalako.

Edurrekin oso gustora ibiltten naz eta neuretako ez da problemie izen. Hala eta be, egixe da auzo batzuetakuek edurre kentzeko premiñie euki dauela, eta iñok ez dutziela lagundu.

Herri haundixe da eta holako problemak normalak izeten die. Udaleko langilliek lelengo auzuetara juen biherko leukie. Herrixen herri arteko karreteretan baiño txarrau egon da.

Izotzakin egon die problema batzuk, labandu egitten gitzen... Erdialdien edurre eta izotza kendu euen, baiñe beste leku batzuetan peligrusueu euen. Hobeto gatz gehixau botatie.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK GABONETAKO ARGIAK KENDU BARIK Irakurle batek aditzera eman digu Bizkaia etorbidean oraindik ere Gabonetako argiak daudela. Zera esan digu herritar horrek: "Arrasatearrok ez daukagu zertan ordaindu argi horiek azaro erdialdetik urtarril bukaera arte". Egoera horren errua Udalarari egozten dio, eta erakunde horren "utzi-keria" rengatik dela azaltzen du.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN / 6

KULTURA / 13

ZAHARRAK / 14

Udalatxen aldeko taldea

Udalatxen egiten dabilten zulaketak gerarazteko taldea osatu dute herriko hainbat elkartek.

Martitzenean, Aratusteak

Martitzenean, hilaren 8an, Aratusteak ospatzeko egitaraua prestatu du Udalak.

80 urtetik gorakoak

Uribarriko erretiratuuen elkartean 80 urtetik gorakoak omendu zituzten martitzenean.

ASTEKODATUA

4.600

KILO JANARI ETA KOMPRESA BATU DITUZTE

Nubi elkarteak aditzera eman ditu Sahararen alde Arrasaten egin-dako kanpainaren datuak. Atuna, azukrea eta konpresak jaso ditu, batez ere. Eroskin, BMn, Udalan eta eskoletan batu ditu gehienak.

BESTEKEKESANA

“

Zerbait gertatu behar zela sentitu zuen, eta hotzikara batek bizkarrezurra gurutzatu zion. Kikildu

gabe, aurrera egin eta gorako bidean, euri gogorra zirimiru bihurtu zen. Metro batzuk atzerago nabaritutako hotza leundu egin zela iruditu zitzaion mutil gazteari. Behe lainoa ere joan zen apur bat gehiago ibili ondoren. Bero egiten zuela iruditu zitzaion. Baina, nola zitekeen horrelako aldaketa bat-batean ematea? Bere irudimena izango ote zen? Begiak igurtzi, aurrera begiratu eta kobazulotik irteten zen argi indartsu bat ikusi zuen. Geldi geratu zen. Amak behin esan ziona gogoratu zuen orduan. 'Zure aitona esaten zuenez, hor bizi da Mari. Hobe da bakean uztea. Beraz, ez gerturatu hona'. Burua nahasirik zuen..."

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL
'GARA'/05-01-29

HERRITARRENBERBAK/ Antton Mendizabal



Jon Agirre

Frankismoaren aurkako haize iraultzailean hezia, Euskal Herriaren defentsa egin zuen Jon Agirrek. Zapalkuntza ez demokratikoaren aurka euskal erresistentziaren kidea bihurtu zen. 1981eko maiatzean guardia zibilak atxilotu zuen. Hamar egun inkomunikaturik, infernuan egotea zer den jakin ondoren, tortura ugari salatu zituen.

Euskal Herriarekiko hainbeste xenofobia duen Espainia Beltzaren eskuetan gelditu zen. Bere etxetik oso urrun, ziegako bakardadean isolatua eta zigortua denbora gehiengan, 25 urte darama espetxe barnean. Eurek egindako legea gutxienez bete egin beharko luketela iruditzen zaigu. Baina, jakina, euskal presoan klasifikazioa irizpide politikoen menpe egon da beti. Bere abokatuaren esanetan, egoera normal batean 1996ko irailean bete beharko zituen zigorraren hiru laurdenak, eta kalera irten. Eta giza eskubideak aldarrikatzen duten

demokrata horiek, bere legediaren aurka zigorra bere osotasunean aplikatu bazioten ere, 2001eko maiatzean irten behar zuen. Baina espetxeetako administrazioak oraindik espetxeratua dauka.

Bizimodu horrek bere osasun egoeran eragina izan du.

"Bizitzaren eskubide sakratua aldarrikatzen duten horiek torturara eta heriotzara bultzatzen dute Jon Agirre"

Urteak pasatu ahala, gaixotasun asko metatu ditu eta une honetan ezin du gehiago eutsi. Malagako eritegian dago gaur Jon. Kontsultatutako sendagile guztiak bat datoz Jonen egoera oso larria dela esateko. Eta koadro

klinikoak txarrera egin du aurten. Malagako espetxeetako asistentzia sozialak dioen moduan Euskal Herrira lehenbailehen ekarri beharra dago eta ondoren etxera. Bizitzaren eskubide sakratua aldarrikatzen duten horiek torturara eta heriotzara bultzatzen dute Jon. Jon Agirrek laguntza behar du. Gure ekimena. Arrasateko eta Aramaioko solidaritate eta elkartasuna.

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Xabier Urzelai
Ubane Madera

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Natali Martínez
Imanol Elortza
Amaia Mundiñano

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
55-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaureritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

ASTEABIHITZETAN

Hotzaldiaren eraginez Garaiako lanak gelditu

Joan den astean izan genuen hotzaldiaren eraginez, egun batzuek Garaiako lanak gelditu egon dira, Markuleteko eta Uribarriko inguruak zuri-zuri zeudelako. Elurra kentzearekin batera hasi zituzten berriro ere lanak, eta, oraingoz, martxa onean dabilta.

Hasierako lanetan bi biribildune eraikiko dituzte, eta baita sarrerako eraikuntza ere. Bigarren fasean, berriz, Uribarriko goiko zatia urbanizatu eta guneko eraikuntza nagusia eraikiko dute. Geroago etorriko dira guneari izaera emango dioten ikerketa eta teknologia zentroak.

San Felipe Apostolek, presidente berria

Joan den domekan egin zuen San Felipe Apostolek, Arrasateko elkar laguntzeko elkarteak, urteko batzar orokorra.

Azken sei urteotan presidente izandako Jesus Mari Arizmendiarririk Pedro Mari Irazuegiri eman zion lekukoa, eta, presidente aldatetarekin batera, joan den urteko balantzea egin eta aurtengo urterako asmoen berri eman zuten. Iaz 93 lagun hil ziren; hala ere, bazkide kopuruak gora egin du; elkarteak 12.600 bazkidetik gora ditu. Urteko kuotei dagokienez, titularrek eta ezkontideek euro bat gehiago ordaindu beharko dute.

Udalak iraunkortasunaren aldeko keinua

Badira urte batzuk Arrasateko Udalak, aho batez, garapen iraunkorraren eta ingurumenaren aldeko aitorpen instituzionala egin zuela, eta orain beste urrats bat egingo du. Euskal Herriko beste udal batzuekin batera, Arrasateko esku hartuko du iraunkortasunaren aldeko programan. Programa horren lehen urratsa izango da udalek zein motatako bulego-materiala erosten duten eta nolako erabilpena egiten duten aztertu.



Meatzerrekako jaietan ondo afalduta

Sabela ondo beteta hasi zituzten joan den egubakoitzean Meatzerreka auzoko jaiak. 50 lagun izan ziren elkartean, tartean auzoko 15 erretiratu. Omenalditxoak egin zieten auzoko nagusiei, opari eta guzti. Opari ederrena, baina, afaria izan zen: langostinoak, bakailao freskoa eta solomilloa. Gero, Gardoki anaien esku egon zen afalostea girotzea.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Familia-plana

Astean albiste ugari batu ditugu. Ekimen asko daude abian: Udalatzen aldeko taldearen aurkezpena, Jon Agirreren aldeko ekimenak, 18/98 auzia, Aratusteak, Europako Konstituzioa...

Baina, asteko albiste esanguratsuenetakoa izan da Espainiako Kongresuan Ibarretxe planaren gainean egindako jardunaldia. Inork gutxiak daki orain-

dik EAJk benetan zer helburu duen edo nora heldu gura duen. Bestalde, PP eta PSOeri dagokienez, ez zen ustekaberi izan: ezezko borobila eman zioten planari.

Hala ere, Madrilen halako gai bat eztabaidatzen hasteak sinbolismo handia du. Bada zerbait.

Ez nituen politikarien adierazpen guztiak entzun, baina adierazgarria iruditu

zitzaidan hainbatek familiaren gainean egin zituzten metaforak. Espainiako apezpiku-konferentzia pozik egongo da.

Zapaterok eta Ibarretxek ahotan izan zituzten seme-alabek gurasoen etxetik irteteko dituzten eskubide eta betebeharrak. Eta Otegi, tratu txarren aurrean, dibortziorako eskubidea aldarrikatu zuen. Familia euskaldunean oinarriak jarri beharko dira gure artean konponbidea aurkitzeko.

ASTEKOIRUDIA



KOLEKTOREAREN LANAK, LUR AZPIKO EDUKIONTZIAK ETA BESTE, FERIXALEKUAN

Azkeneko egunetan lan handiak egiten dabilta Mondragones kalean. Hain zuzen ere, kalea itxi egin dute, zoruan zulo handiak egin dituzte eta horma bat bota egin dute. Urtarriletik udara bitartean hainbat lan egin behar dituzte Mondragones, Okendo eta Azoka kaleetan. Batetik, Maalako eta inguruko kalee-

tako ur zikinak Otalora kaletik abiatuko den kolektoreko hodieta eramango dituzte. Bestetik, lur azpiko edukiontzia ipiniko dituzte. Eta, horrez gain, hiru kale horietan oinezkoek lehentasuna izango dute. Lanek miloi bat euroko aurrekontua dute, eta Moyua enpresa dabil zeregin horretan. //B.

BASATI TABERNA
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
943 711762

S. CARRASCAL S.L.
Guk egindakoak:
- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak
Fabrikan erakusketa
Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a
Tel./Faxa: 943 79 01 82

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK
AGR
García Ripa
ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA
Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC
Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia
Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua
Osagarriak
Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaiak eta aulkiak

BOTEPRONTUEN

Alberto Encinas

JAI ZALE TABERNA

XABIER URTZELAI

Jai Zaleko sukaldien egin dutzegu Albertori elkarrizketie. Eguakotx atsaldie da, eta gabien salduko dauen bokadilluetarako perretxikuek frijiduten harrapau dogu. Denda atzian, fabriketan, ofiziñetan edo mostradorien egin izen dogu elkarrizketa hau, baiñe sekule be ez sukaldien. Eskerrak ondo bazkaldu doten.

Jai Zalera, eguakotxetan ala zapatuetan?

Zapatuetan ambiente politte egoten da, baiñe neuri eguakotx gabeko ambientie gustetan jat gehixau, lasaitxuau da.

Azkenaldixen, dantzan be ibiltten da jentie...

Bai, eta biherrezkue da, gaiñera. Estresa kendu eta problemak ahazketako ondo etorten da dantzan egittie.

Eta animadore lanetan ibiltten zarela entzun dot...

Ez, ez, neu ez naz animadorie. Egixe da musikie ipintten dotela; batzuekako klasikueixe nazela esango neuke.

Bokadilluetan dauketzuen bariedadiekin, solomue gaztaiezk eskaketie, pekatue?

Ez dakit pekatue izengo dan, baiñe bai tristie.

Ze eskatuko dot gaur gabien afaitteko?

Perretxikuekin, gaztaiekin, urdeiazpikuekin eta pipar berdiekin egindako bokadillue, adibidez.

Ez da kafe antzokixe, baiñe egittien dozue kultura ekitaldixek.

Bai. Taberna normal baten egoten danaz gain, gustetan jaku holako gauzak organizatie: teatru, kontzertuek... Kontue ez da edatie bakarrik.

Kontzertuek, posible bada, baterixa barik.

Argi daukogu guk disfrutetiez gain, inguruko bizilagunek trankil deskantsetako deretxue daukiela. Alde horretatik, holako kontzerturen bat egittetotan, atsaldien.

Futboliñeko jokalarixek: hanka batekuek ala bi hanka-



“Gustetan jaku Jai Zalen kultura ekitaldixek antolaketie; dana ez da edatie”

kuek?
Egixe esateko, ez dot askorik jokaketan, baiñe gureu dot hanka batekuek, hamen daukogune.

Eta Jai Zaleko futboliñeko jokalarixek ze taldekuek dien preguntetan badutzut...

Badakit erantzune, oin dala gutxi kanbixau dittut-eta. (Barre) Realekuek eta Athleticekuek die geure futboliñeko jokalarixek.

Zeure laneko gauza onena?
Jentiekien eukitten dogun trautue, esango neuke.

Eta txarrena?
Kapulloren bat etorten danien, bronkarako gogouekin.

Zerek emuten dutzu begixetan min?

“Gabetan ez dogu kontzerturik egittien; bizilagunek deretxue daukie trankil deskantsetako”

Prepotentziak eta ondokuei zapalketan ibiltten dan jentiek.

Ze falta jako Mondragueri?

Herrittarron artien gerueu eta problema gutxiaue egoteko jarrerie eukittie. Jaixen kontue izen da azken adibidie, Udalak euki dauen jarrerie ez jat gustau. Pentsetan dot posible dala gauzak danon artien egittie, eta askotan hobeto egittien die, gaiñera.

Kapritxo bat.

Kapritxo haundixek die: euskal presuek etxien egotie, eta, horrekin batera, iñok ez daixela euki problemarik beste batzuen moduen pentsetan ez dauelako. Idea danak, pertsona danak eta proiektu danak die errespetagarrixek.

NIREBIDAIAHURA / Pedro Olmo / Leire Eraña

AEBetara / 2004ko urritik abendura arte

Santa Cruzen, Kalifornian, utzi genituen Leire eta Pedro joan den astean: “Hiri batetik bestera trenean joaten ginen, baina kostaldeko herrietara joateko autoa alokatzen genuen”. Hala bisitatu zituzten Monterey, Carmel eta Big Sur, besteak beste. Santa Barbaran ere egon ziren: “Trenean iritsi ginen hara, eta asko gustatu zitzaigun. Jendea laguntzeko gertu zegoen eta igartzen zen hiri unibertsitarioa dela, giro polita zegoen-eta”. Han autoa alokatu, eta telesailetan ikusi izan ditugun Malibu, Venice Beach, Santa Monica, Newport eta bestelako herri eta hondartzetan izan ziren: “Telebistan azaltzen diren moduko lekuak dira. Hondartza ondoan gimnasioak, neska-mutiko ederrak euren banderaren koloreetako bainujantzi eta bikiniekin... Gorputza zaintzea erlijioa da han, eta egia esan behar badut, ez nuen pertsona gizenik ikusi. Hori bai, hondartza dagoen kalea aberatsa da, baina bi kale atzerago pobreak baino ez daude”.




“Kaliforniako kostaldea telebistan azaltzen den modukoa da”

Arrasateko bikoteak Los Angeleserako bidea hartu zuen: “Dezepzio txikia hartu nuen Hollywood zer zen ikusita. Zerbait gehiago espero nuen. Eta, inguruko auzo famatuetan, Beverly Hills-en adibidez, ez da ezer ere ikusten. Hori bai, esaten zuten horrelako edozein etxetan txirrina joz gero lana emango zigutela.

Egun gutxi geratzen zitzaizkien treneko txartela agortzeko, eta korrika batean bisitatu zituzten Las Vegas, Yosemite parke naturala eta Arroila Handia: “Sinestezina da Las Vegas non eraiki zuten; desertuaren erdian dago. Yosemite ere ederra da, baina turista askorik ez dagoenean. Alde horretatik, guk zortea izan genuen. Udan, baina, 400 autobus baino gehiago joaten dira egunero. Azken baten, AEBetan muturrera eramaten dute dena, baita turismoa ere. Arroila Handia ere ikustekoa da, baina penaz geratu ginen, oso denbora laburra egin genuelako bertan”. Datorren astean Hawaii egongo da gure zain.

XABIER URTZELAI



“Dezepzioa hartu genuen Hollywood zer zen ikusita”.

Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaia kontatzeko prest zaude?
Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.



OSOKO BILKURA/ Urtarrilari dagokion ohiko batzarra

Europako Konstituzioak eztabaida piztu zuen Udaleko alderdi politikoaren artean

UBANE MADERA

Iritzi kontrajarriak erakutsi zituzten politikariek asteleheneko osoko bilkuran. Europako Konstituzioaren aldeko bi mozio aurkeztu zituzten eta beste bi kontra. Azkenean, PSE-EEK aurkeztutako aldeko mozioa onartu zuten, alkatearen kalitatezko botoari esker.

PPk eta PSE-EEK aurkeztu zituzten Europako Konstituzioaren aldeko mozioak. EBk eta EAK, berriz, kontrakoak. Aralarrek ez zuen moziorik aurkeztu, baina EBren eta EAren mozioak onartu zituen. Bukatzeko, EAJko zinegotzietan botoa emateko askatasuna eman zien alkateak. Hala, batzuek aldeko jarrera erakutsi zuten, beste batzuek kontrako eta zenbait abstenitu egin ziren. Azkenean, eta EAren eta PSE-EEren mozioen arteko berdinketa egon ostean, berriro bozkatu eta PSE-EErena onartu zuten udalbatzarrek, alkatearen kalitatezko botoari esker.

ALDERDIEN ARRAZOIAK, ALDE

Laburbilduz, PPK Konstituzioaren alde egin zuten, esanez Europak Espainiari hazkunde ekonomikoan lagundu diola, garapena bultzatu duela eta, oro har, Konstituzioaren alde egitean proiektu nazional eta europeista baten alde egiten dela; gaineratu zuten Europako kide diren estatuen lurraldearen osotasuna ziurtatzen duela, eta sezesionismoak baztertu.

PSE-EEren iritziz, oro har, bizitza maila eta kalitatea hobetzen ditu Konstituzioak. Halaber,

balio sozialak merkatu ekonomia-riaren gaitetik ezartzen dituzten gure oinarriko askatasunak bermatzen ditu eta, oro har, garapena ekarriko du, baita aukera berdintasuna ere.

Lehen esan bezala, azken mozio hori onartu zuten udalbatzarrek, zortzi botorekin, tartean, alkatearen kalitatezko botoarekin: PSE-EE eta PP eta EAJko Agustin Ugarte eta Inazio Lakuntza. Aldeko boto hori arrazoizko alkateak emandako arrazoien artean, esan zuten Europazalea zela bera; eta oro har, Europaren bide horretan aurrerapausoa dela Konstituzio hori. Era berean, PSE-EEren mozioa onartuko zuela eta ez PPrena, PPrenak Estatuko lurraldetasunaren kontua aipatzen zuelako.

ALDERDIEN ARRAZOIAK, KONTRA

Kontrako mozioei dagokienez, berriz, EAK nabarmendu zuten Konstituzioa egiteko orduan ez dutela kontuan hartu estatu bako nazioen parlamentuen parte-hartzea. Gaineratu zuten Konstituzioak ez duela Europako hizkuntza guztien eskubideak errespetatzen, ezta herrien autodeterminazio eskubidea ere, eskubide zibilak ez dituela behar beste indarrarekin defendatzen eta, oro har, ez duela ongizatearen bidean aurrera egiten.

Bestalde, EBk salatu zuten Konstituzioak sistema neoliberal eta elitista bultzatzen duela, "AEBekin lehiatuko den Europa inperialista sortu nahi duen eredu", gizon eta emakumeen arteko berdintasuna ez duela errespetatzen, oinarriko eskubideen



Sarritan ikusten ez den irudia erakutsi zuten osoko batzarrean: alderdi bereko zinegotziak boto desberdina ematen.

gutuna eskasa dela, askatasun politiko eta zibilak ekonomia-riaren mende uzten dituela eta, besteak beste, etorkinekin ez duela zuzen jokatzeko.

Eta Aralarrek nabarmendu zuten aurkeztu duten hitzarmena ez dela Konstituzio bat, estatuen arteko tratatu bat baizik; Parlamentuak kontrolatzen ez duen organo bat sortuko dutela: Europako Bankua, kapitalismoa demokraziarekin parekatzen duela eta,

oro har, ez duela izaera plurinazionala onartzen.

URBANOAK, ORDUBETE GUTXIAGO

Konstituzioaren gaiaz gain, bestelakoak ere landu zituzten udalbatzarrek. Tartean, Garagartzako eta Santa Marinako auzo-alkate berriak izendatu dituztela jakinarazi zuten: Garagartzan, Pedro Otxoa eta Santa Marinan, Ana Belen Granada. Horrekin batera, Arrasateko urbanoaren gainean

udalbatzarrek zera erabaki zuten: tarifak handitzea; hain zuzen, txartel arrunta 0,70etik 0,85era 2005ean eta 2006an euro batera. Eta bostak, 0,52tik 0,56ra. Eta baita ere zerbitzuaren azken bidaia 21:00etan izatea, zapatuetan izan ezik; zapatuetan 22:00etan izaten segituko du.

Bestalde, Mojatetik 10 kilometroko proiektuari onespina eman zion aho batez, eta, besteak beste, azoka plazako saltoki hutsak esleitzeko bideari ekin zion.

Erakundeetara jo dute Udalatxan aldekoek

U.M.

Udalatxan aldeko taldea aurkeztu zuten astelehenean. Besteak beste, mendiaren zulaketa gerazteko erreferenduma egin gura dute Arrasaten. Zulaketaren kontrako bi gutun ere bidali dituzte: bata Arrasateko udaltxera; bestea, Eusko Jaurlaritzara.

Honako talde, alderdi politiko eta sindikatuek osatu dute Udalatxan aldeko taldea: AHT Elkarlana, Ekologistak Martxan, Besaide Espeleologia Taldea, gazte-txea, Segi, CCOO, LAB, ESK, Ahots Kooperatibista, Ezker Batua-Berdeak, Aralar, Zutik, Batasuna eta Herri Anitzak.

Prensaurrekoa egin zuten astelehenean taldea bera aur-

kezteko eta taldearen helburuen berri emateko. Taldeko kide Jabier Abalde jakinarazi zuten besteak beste gutun bana bidali dizkietela Arrasateko alkateari eta Jaurlaritzako Ingurumen sailburuari.

Arrasateko alkateari galdetu diote ea gaur egun egiten dabilzan zulaketak baduen Udalaren baimenik.

Sabin Intxaurregarai, berriz, esan diote Udalatx barrutik harria ateratzeko asmoa gehiegikeria dela; era berean, gogorarazi diote Udalatx babestu beharreko gunea den azterketa ugari daudela egin da. Halaber, salatzen dute egiten dabilzan azterlanak erakusten badu meategia bideragarria dela, proiektuaren arabera meategiak 1.059.000 m²-ko azalera hartuko duela, 165 futbol zelairen bestekoa.



Herritarren parte-hartzea gura du Udalatxan aldeko taldeak, mendi horretan egiten dabilzan zulaketak gerazteko.

POLITIKA/ Jon Agirreren aldeko taldea

Jon Agirreren eskubideak berma daitezela eskean

U.M.

Azkenaldian, Jon Agirre presoaren giza eskubideak eskatzeko ekimen ugari egiten dabilta. Oraingo astean, haren aldeko mozio bana onartu dituzte Arrasateko eta Aramaioko udalek. Gainera, manifestazioa deitu dute biharko, Arrasaten, 19:00etan.

Arrasateko eta Aramaioko udalek eta indar politiko eta sindikalen gehiengoak bat egin dute azkenaldian Jon Agirre preso aramaiorren aldeko ekimenetan. Arrasaten bizi zen preso aramaiarra da Jon Agirre. 1981ean atxilotu zuten eta harrezkero Euskal Herritik urrun dauden kartzeletan egon da preso. Gaur egun, Malagan dago, 62 urte ditu eta 23 eta erdi egin ditu preso. Senitartekoez eta Aramaioko medikuak jakinarazitakoaren arabera, hainbat gaixotasun larri ditu presoak (hipertentsio arteriala, diabetesa, hiperkolesterolemia, odoleko gluzemiaren kontrol txarra, bihotzekoa izateko arriskua...), eta bi ebakuntza gogor egin behar dizkiote.

MOZIOAK ONARTU DITUZTE

Hori dela eta, Jon Agirre Herri Ekimena taldean batu diren elkarre eta erakundeek presoaren "egoera oso larria" salatu gura dute eta horren aurrean neurriak



DEIANE ARRIETA

Indar politiko eta sindikalen gehiengoak bat egin du Jon Agirre Herri Ekimenean.

hartzeko eskatu; Jon Agirre preso politikoa dela aldarrikatu ostean, lehenengo Euskal Herrira ekartzeko eta gero eskatzeko eskaera egin dute. Hain justu ere, hori eskatzeko mozio bana sartu dituzte Arrasateko eta Aramaioko udaletan. Bietan onartu dute mozioa. Arrasaten, EAJ, EA, Aralar eta EBren aldeko botoekin eta PPren eta PSE-EEren kontrakoekin. Eta Aramaion, aho batez.

BIHAR, MANIFESTAZIOA

Horrekin batera, Jon Agirre Herri Ekimena manifestazioa deitu du biharko, zapatua, 19:00etan, Herriko Plazatik aterata.

Bestalde, esan beharra dago Jon Agirreren lankide ohiek haren askatasuna eskatzeko sinadura bilketa egin dutela lantokian. Union Cerrajerako eta Torlojuzgintzako fabrikako langileen %60k sinatu dute presoaren alde.

la 49.000 euro gastatu ditu Udalak pintadak garbitzen

U.M.

laz bezala, aurten ere Obrak, Zerbitzu eta Mantentze Sailak joan den jardunaldiko datu estatistikoak jakinarazi dizkigu. Nabarmenezkoa da, besteak beste, 48.976 euro gastatu dituela paretetako pintadak garbitzen; eta garabiaren erabilera jaitsi egin dela %13.

Bestelakoak aipatzearen, bandalismoak eragindako kalteen berri ere eman zuten: 24.970 euro gastatu zituen Udalak 2004an konponketak egiten (erretako zakarrontziak, Monterongo komunak, Gazteluondoko argizatzea...).

Edozelan ere, oro har, Udalaren zerbitzuen gaineko balorazio positiboa egin zuten. Esaterako, taxi-busaren zerbitzua %3 igotzeaz gain, jakinarazi dute bidaiari kopurua egonkortu egin dela 10.000-11.000 bidaiaritan. Urbanoari dagokionez, bidaiari kopurua



U.M.

Zerbitzuburu Moises Altuna eta Luis Etxebarriarteun zinegotzia, prentsaurrekoan.

190.000 bidaiaritan egonkortu dela esan zuten, eta oso ondo funtzionatzen duen zerbitzua dela.

Eta, bestelakoaren artean, aipatu zuten kalean jasotako txakur

kopurua %30 igo dela iazkoaren aldean. Eta garabi zerbitzua, berriz, %13 jaitsi dela. Azken horren zergatia aztertzen dabilzala ere gaineratu zuten.



Arrasateko euskalgintza



"Gazteei esker, nire laneko giroa euskaldunagoa da"

ARRASATEKO EUSKALGINTZA

Hemendik aurrera, hilean behin autobiografia linguistikoak izango ditugu tarte honetan. Hau da, zenbait herritar esanguratsuk euskararekin izandako esperientziak kontatuko dituzte. Oraingoan Arrasate Musikaleko zuzendariari galdetu diogu.

"Aretxabaletan jaiotzen, familia euskaldunean. Txikitant, gurasoen etxean, 6 urte izan nituen arte euskaraz egin nuen. Gurasoak euskaldunak ziren, baina amak gaztelarrekiko joera handia zuen, eta, apurka-apurka, geroago eta gehiago neu ere gaztelaraz hitz egiten hasi nintzen.

Hori bai, 3 urterekin eskolara joan nintzen. Mojak ziren irakasle eta haiekin euskaraz egiten genuen. Han ikasi nituen, esaterako, euskal kantak eta euskarazko lehenengo berbak, *Xabiartxo* liburuarekin.

Baina lehenengo mailan hasi ginenean gaztelarera pasaginen eta handik aurrera beti gaztelaraz ikasi nuen dena eskolan.

IKASTOLAREN ERAGINA

Dena dela, garai hartan Aretxabaletako Ikastola sortu zuten. Nire lagun batzuk hara joan ziren ikastera. Horri esker, lagunaren artean euskaraz erabiltzen jarraitu genuen eta neuk ez nuen guztiz galdu ama hizkuntza. Urte batzuk

geroago, Almenen nebilela, ingelesa ikasten hasi ginen bosgarren mailan, eta seigarren mailatik UBira arte euskara irakasgai izan genuen. Horrek guztiak euskara maila nahiko ona izaten lagundu zidan.

LANEAN, EUSKALDUNAGO

Lanari begiratzen badiot, berriz, esan beharra daukat nire laneko giroa geroago eta euskaldunagoa dela; nahiz eta zenbait lankidek euskaraz jakin ez, jende gazte asko sartzen dabil eta horren eragina asko igartzen da. Dena dela, egia esan, gure lanean hitza ez dugu askorik erabiltzen musika egiten ari garenean.

Bestalde, nire bikotekidea euskara ikasten hasi zenean lagundu egiten nion, eta gure eguneroko harremana euskaraz izatea lortu genuen.

Gaur egun, etxean umeekin euskaraz mintzatzen gara, eta, gainera, seme-alabak kanpoko hizkuntzak ikastera bultzatuko ditut, mundua zabala dela ikas dezaten".

Badakitzu etxera heltzen dan propagandie euskeraz jasoteko eskubidie daukatzule? Zure eskubide hau ez dala beteten?

EZ IXILDU!!!

ALDARRIKATU ETA SALATU

www.behatokia.org edo deitu

HIZKUNTZ ESKUBIDEEN BEHATOKIA EUSKARAREN TELEFONOA 902 194 332

SASKIBALOIA

Behetik gora datorren Mugarri Alkesak Musakolan jokatuko du bihar, 18:00etan

Lehenengo itzulian, Bidegintza Zallak erraz irabazi zion Mugarri Alkesari; orain, erreferentzia horrek ez du balio, Arrasatekoak sasoi betean daude eta

XABIER URTZELAI

Kilometroen aldeko eskubaloi norgehiagoka dela eta, Mugarri Alkesak Iturripen jokatuko du bihar arratsaldean. Bidegintza Zalla talde bizkaitarra izango dute bisitari; joaneko partiduan jaun eta jabe izan zirenak, hain zuzen.

Azken jardunaldietan, baina, Mugarri Alkesak erakutsi du ez dela lehenengo itzuliko talde bera eta orduan galdutako partidua ez direla erreferentzia. Eta Legarzia, Getxo eta Deustua taldeei irabazitako norgehiagokak erakusten dute hori. Biharko kontrarioa, akaso, aurrekoak baino gogorragoa da, baina bizkaitarrak ez daude aldarte onenean; indartsu hasi zuten txapelketa, Mugarri Alkesari 97-76 irabazita, baina azkenaldian makalduta dabilta. Dena dela, laugarren postuan daude, Arrasateko taldeak baino bi partidu gehiago irabazita.

SASKIBALOIA GOITB-N

Astelehenean, GOITBko *Harmailatik* saioan Julen Iriondo lankideak Arrasateko saskibaloitaldearen gainean egin zuen berba. Talde nagusiaren egoera aztertzeaz gain, klubaren ibilbidea ere gainbegiratu zuen Jagoba Gamarrarekin batera. Beste gauza askoren artean, taldeak Gabonetatik hona izan duen aldaketaren gainean galdetu zion Julenek: "Joan den urtean ere antzerako zerbait gertatu zitzaigun, Gabonak arte gaizki ibili ginen, eta gero buelta eman genion horri. Lehenengo itzulian lesioekin arazo handiak izan ditugu, eta hori izan daiteke arrazoietako bat. Horrez gain, orain momentuan taldean ditugun bi joko antolatzaile sasoi betean daude, eta taldeak hori igarri egiten du. Kintanaren eta Gorka Alartziaren gainean nabilt. Akaso, gainontzekook erregularragoak izan gara, baina bi jokalaririk horiek dakitena erakusten hasi direnean gure joko mailak gora egin du". Eutsi, bada, joko maila horri.



Bizkarra ematen dabilen Gorka Kintana, Ander Mallabi-k Legarziako jokalariei aurre nola egiten dien ikusten.

GOIENKARIA

Atzeratutako partidua noiz jokatuko duten jakin barik, Pasai Antxora

X.U.

Joan den astean Atxabalpe futbol zelaia txarto zegoela eta, Mondrako jokalariek deskantsua izan zuten. Eta seguru eskertu zutela asteburu bat behintzat libre izatea. Txarrena, atzeratutako jardunaldi hori jokatu egin beharko dutela, Aste Santuan seguruen.

Izan ere, egutegiak ez du aukera handirik ematen. Eguen Santuan jokatzeke proposamena

egin dio Mondrak Hondarribiari. Hori esan digu Mondrako presidentek, baina Jose Luis Ezkurrak badaki egun horiek ez direla aproposenak, Realeko gazte mailako txapelketa ere egun horietan jokatuko dutelako, eta Atxabalpen izango delako partidurik. Hala, atzeratutako norgehiagoka bat jokatzeke, nahiko buruhauste.

ALDAKETA HANDI BARIK

Norgehiagoka bat gutxiago izanda ere, Mondrak ez du behera

egin sailkapenean, eta hamai-kagarren postuan jarraitzen du, 28 punturekin. Hori bai, sailkapena ezin estuago dago: asteburuko kontrario Trintxerpek 31 puntu ditu, Mondrak baino norgehiagoka bat gehiago jokatuta. Preferentean betiko leloarekin jarraitzen dugu: talde guztiak gain-gainean.

ASTEBURUAN, PASAI ANTIXORA

Mondrak bihar (16:30ean, Pasai Antxon) jokatuko duen norgehiagokan ez du aparteko kontrarioarekin topo egingo, etxean jokatzen dutenean ez behintzat. Don Bosco futbol zelaian jokatu dituzten hamar partiduetatik lau baino ez dituzte irabazi, eta bakarria berdindu. Gai-nontzeko puntuak etxetik kanpo eskuratu dituzte. Hori bai, behetik gora datorren taldea da, abenduan hamahirugarren postuan zegoelako eta dagoeneko zazpigarrena delako sailkapenean. Amaitzeko, esan, Arrasateko taldeak eta Trintxerpek Atxabalpen jokatu zutenean —laugarren jardunaldian— huts eta huts egin zutela; horrek, baina, ez ditu gauzak askorik argitzen, talde bakarria dago eta Mondrak baino partidu gehiago berdindu duena.

FOTOKIROLA



Brontzea eta gazta Markel Blancorendako

Asteburu borobila izan zuen Markel Blancok joan den astean. Zapatuan, Idiazabalen egin zuten 4x400 metroko lasterketan Arrasatek bi talde izan zituen: bigarren postuan sailkatu zen lehena eta laugarren postuan bigarrena. Hala, Arrasate Atletismo Taldekoek zortzi gazta ekarri zituzten etxera. Domekkoa izan zen, baina, egun handia. Lasarteko nazioarteko kro-sean izan zen Markel, eta 6.700 metroko proban Arrasateko atletak brontzea eskuratu zuen, hirugarren helmugaratuta. /X.U




GOIENKARIA


Hamar zeingehiagoka berdindu ditu Mondrak, horietako bat Trintxerperen kontra.



ARRATUSTEETAN IZAN ZAITEZ PISTAKO IZARRA!!



BENGOA
BASATI
BOLINETE
IRATI
ITZALA
BIONA
GURE LEHU
LORA
RUMBA
JAI ZALE
BRANNA
MONTE
AMETS
ILUNTZ

Zirko Ttiapiaren *Giriguai* ikuskizuna abendurako iragarri zuten, baina eguraldiaren ondorioz atzeratu behar izan zuten.

Otsailean, umeendako hainbat ikuskizun egingo dituzte Amaian

IKER BARANDIARAN

Otsailean, umeendako hainbat ikuskizun egingo dituzte: bihar, Zirko Ttiapiak *Giriguai* ikuskizuna egingo du; martitzenean, Kukubiltxok *Betizuak izar artean*; eta 21ean eta 22an, *Trikitraka trikitron*.

Zirko Ttiapiak abenduaren bukeran egin behar zuten *Giriguai* ikuskizuna Arrasaten, baina elurraren eraginez atzeratu egin behar izan zuten.

Gauzak horrela, beste egun bat hitzartu dute Udaleko Kultura Sailarekin; hain zuzen, bihar, zapatua, egingo dute, Amaia Udal Antzokian. 17:00etan izango da.

Zelenina, Pibo eta Kilikor zirku tradizionalen ibilitako hiru lagun dira. Zeleninak gauzak ondo egitea du gustuko, Pibok pasio handia jartzen du egiten dituen gauzetan, eta Kilikor, berriz, urduri ibiliko da, bere debuta izango delako. Pertsonalitate horiek batuta hainbat egoera berezi sorraraziko dituzte.

Giriguai oso ikuskizun zabalak dira. Izan ere, zirku tradizionalaz gainera, dantza, malabarismoak, ekialdeko kultura, musika eta ikusleen parte-hartzea uztartzen ditu, besteak beste.

Virginia Imaz da zuzendaria. Imazek ibilbide luzea egin

du ikuskizunetan. Besteak beste, Oihulari Klown taldeko sortzaileetako bat da, ipuin kontalaria da, eta atzerrian ibili izan da, Cirque du Soleil taldearekin lanean, hain zuzen ere.

Arlo teknikoari dagokionez, *Giriguai* lanaren eszenografiaz Patxi Araujo arduratu da eta musikaz, berriz, Txema Arteta.

Kiti Cancel da Zelenina, Patxi Erro da Pibo, eta Josu Florentino da Kilikor. Hirurek lan handia egin beharko dute umeak eserlekuetan geldi egon daitezen.

'Giriguai'
ikuskizunak zirku
tradizionala, dantza
eta malabarismoak
uztartzen ditu

*Martitzenean, ETBk
eta Kukubiltxok
'Betizuak izar
artean' ikuskizuna
egingo dute*

MARTITZENEAN, 'BETIZUAK'

Bestalde, biharko ikuskizunak asetzen ez dituen umeek beste hitzordu bat izango dute martitzenean: ETBren eta Kukubiltxoren eskutik, *Betizuak izar artean* umeendako ikuskizuna egingo dute, Amaia antzokian, 17:00etan.

Maiatzean estreinatu zuten ikuskizuna. Musika eta antzerkia uztartzen dituzte, eta, euren esanetan "Betizu, Betisuis eta M-U etorkizuneko garaietara" eramango dituzte. Ordubeteko saioan, ETBko *Betizu*-ko pertsonaiek musika talde bat sortu eta entsegu gelan ikusiko ditugu hainbat gorabeherarekin.

Ume txikiendako da ikuskizuna—hain zuzen ere, 9 urte artekoendako da—, eta ordubete irauten du.

Zuzendaria Josu Kamara da, eta aktoreak honako hauek dira: Isabel Muxika (Betizu), Olatz Gorrotxategi (Betisuis), Maite Fombellida (M-U) eta Jose Mari Perez (Arrati). Musika Aitor Furundarenak egin du.

HILABETE BUKAERAN, PAILAZOAK

Bukatzeke, otsailaren 21ean eta 22an, Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazok egiten duten *Trikitraka trikitron* telebistako programa Amaia Udal Antzokian egingo dute. Bi egunotan 19:00etan hasiko da.

Arrasateko Musika Eskola, Aratusteak girotzeko prest

I.B.

Arrasateko Musika Eskola lanean dabil berriro. Bi ekintza iragarri dituzte, eta biak Aratusteetan girotuta daude: bata, kontzertu bat eskolan; eta bestea, Balet eta Bandaren Zirkua kalejira.

Dagoeneko heldu da Aratusteen giroa Arrasateko Musika Eskolara. Ezagun da musikariak festazaleak direla, eta hala erakusten dute urtero Arrasateko Musika Eskolako ikasle eta irakasleek; ahalik eta ondoen ospatzen ahalagintzen dira-eta. Gaur, egubakoitza, Arrasateko musika eskolako ikasleek kontzertu berezia egingo dute Musika Eskolan. Ikasle askok esku hartuko dute eta guztiak mozturorik joko dute kontzertua. Hitzordua 18:30ean egin dute.

Bestalde, martitzenean, hilaren 8an, Aratuste eguna ospatuko dugu Arrasaten. Hala, egun horretan kalejira egingo dute Musika eskolakoek. Hain zuzen, Arrasateko Musika Eskolako banda nagusia eta balet taldeak irtingo dira kalera, 19:00etan.

MUSIKA ESKOLAKO ZIRKUA

Honelaxe bataiatu dute kalejira egingo duen taldea: Arrasateko Musika Eskolako Balet eta Bandaren Zirkua. Bandako partaide guztiak zirkuko mozturorak jantziko dituzte, eta baletakoek berriz, malabarista lanak egingo dituzte.

Horrenbestez, talde hori Arrasateko kaleak alaitzen ibiliko da nekatu artean. Bandak honako pieza hauek joko ditu, besteak beste: J. Sousaren *Estrellas y barras* eta N. Iwaireren *Mouse march*.



Arrasateko Musika Eskolako Bandako kideek kalejira egingo dute martitzenean.



Gesalibarren jaiak, gaurtik domekara

Gesalibar auzoa jaietan murgilduko da gaurtik domekara arte. Gaur, egubakoitza, bertso afaria egingo dute Mendiluze eta Solozabalekin. Bihar, eguna umeendako jolasekin eta mezarekin hasiko dute. Horren ostean, etxerik etxe koplak abestuko dituzte eta iluntzean afaria, erromeria eta rock kontzertua egingo dituzte. Domekan, meza eta luntxa izango dituzte. I.B.

JAIK/ Urtero moduan, martitzenean ospatuko dituzte Aratusteak

Martitzenean, batez ere umeendako eta gaztetxoendako ekintzak egingo dituzte

IKER BARANDIARAN

Urtero moduan, arrasatearrek martitzenean ospatuko dituzte Aratusteak. Egun horretan irtengo dira herritarrek mozorrotuta: arratsaldean, umeak; eta iluntzean, helduak. Gaueko parranda, berriz, batez ere gazteek egingo dute.

Aratusteek ez dute oihartzun handirik Arrasaten. Ez behintzat beste herri batzuetan bestekoa. Gaur, egubakoitza, bihar eta etzi ez da igarriko Aratusteak direnik; eta martitzena, laneguna izanda, ez da jai egiteko egunik aproposena izaten. Hala ere, askok eta askok gogoz hartzen dute Aratuste-martitzena, eta ez diote uko egiten urteroko hitzorduari. Iluntzean ez bada ere, mozorroa poz-pez aterako dute kalera.

Martitzen goizean, eguerdian eta arratsaldean umeak eta gaztetxoak bakarrik mozorrotzen dira. Are gehiago, arratsaldean ez dute eskolarik ematen, eta bestelako ekintzak egiten dituzte ikastetxeetan. Iluntzean, berriz, nagusiagoek hartzen dute lekukoa, egun osoa egiten dute-eta horren zain. Eta gaueko parrandan, berriz, batez ere ikasleak ibiltzen dira, gainontzekoek biharamunean lan egin behar izaten dute-eta. Arrasaten, behintzat, Aratusteak gazteen jaiak izaten dira. Eurak izaten dira protagonistak.

Bestalde, aurtengo Aratusteen irudia Peru Altubek egin du; izan ere, Altube gaztetxoak irabazi du Udalak antolatutako lehiaketa (9 urte ditu). Herriko saltoki eta tabernetan hainbat horma-irudi ipini dituzte, eta eskoletan eta saltoki horietan



Herriko hainbat lagunek urtero egiten dute mozorrotzeko hitzordua.

esku-orriak banatu dituzte. Horietan, Udalaren egitaraua laburbildu dute. Udalak 10.000 euro inguru gastatuko ditu egun horretarako ekintzetan.

UMEENDAKO ETA GAZTEENDAKO

Udaleko Kultura Sailak honako egitaraua antolatu du martitzenerako: 17:00etan, Kukubiltxok eta ETBk *Betizuek izar artean* ikuskizuna egingo dute Amaia Udal Antzokian. 17:00etan izango da.

17:30ean, Samasiku txaranga Herriko Plazatik irtengo da.

Horren ostean, 19:00etan, Arrasateko Erraldoi eta Kilikien Konpartsak kalejira egingo du. Ordu berean, Arrasateko Musika Eskolako Zirkuaren Banda ere kalera irtengo da. Zirku hori Musika Eskolako bandak eta balet taldeak osatzen dute. Bandak hainbat pieza joko ditu, eta balet taldeak malabarismoak egingo ditu. Nekatu artean ibiliko dira kaleak alaitzen.

Iluntzean, Drindots taldeak dantzaldia egingo du Herriko Plazan. Bi saio egingo ditu: bata, 20:00etan eta bestea, 22:30ean.

Egitarauari bukaera ematen dion ekintza 23:30ean egingo dute; izan ere, ordu horretan egiten dute sardina-ehorzketa. Hainbat lagunek segizioa egingo dute sardinaren irudiari laguntzeko. Erdialdeko kaleetan ibiliko dira, eta irudia Herriko Plazara eramango dute. Eta han, su emango diote.

Sardina-ehorzketa eginda, batzuek Aratuste jaiak bukatutzat emango dute. Beste askok, berriz, egunerako espresuki apaindutako tabernetan igaroko dute gaua.

Alemanian egindako drama eta AEBetako komedia

I.B.

Gaur, egubakoitza, etzi eta etzidamu, *Ocean's twelve* AEBetako komedia emango dute Amaia Udal Antzokian. Eguenean, berriz, Alemaniak eta Turkiak lankidetzan egindako *Contra la pared* drama. Asteburuan ez dute umeendako filmik emango.

Ocean's twelve komediak 115 minutu irauten du, eta Steven Soderberghen zuzendu du (*Sexo, mentiras y cintas de video, Tra-*

ffic, Un romance muy peligroso, Ocean's eleven...).

Protagonistek hiru margolan lapurtu gura dituzte, Amsterdamen, Parisen eta Erroman. Baina atzetik, besteak beste, mafia eta nazioarteko polizia dituzte.

Protagonistak honako hauek dira: Brad Pitt (*Snatch, cerdos y diamantes, El club de la lucha...*); Matt Damon (*Dogma, El indomable Will Hunting...*), Andy Garcia (*Confidence, Medidas desesperadas...*) eta beste batzuk.

Eta eguenean, hilaren 10ean, *Contra la pared* drama emango

dute zineklubean. 120 minutu irauten du, eta Fatih Akin alemaniar-turkiarrak zuzendu du (*Kurz und schmerzlos, In juli, Solino...*).

Cahit (mutila) bere buruaz beste egiten saiatuko da, eta ospitale psikiatriko baten laguntza emango diote. Hala ere, drogak eta alkohola hartzen jarraituko du. Sibekek (neska), berriz, familia musulmanetik ihes egin gura du, aske izateko. Irtenbide bakarra ezkontzea da, eta horixe eskatuko dio Cahiti. Ohartu barik maitemindu egingo dira, baina gutzia ez da hain erraza izango...

LABUR

Bihar, Obligaciones eta Los Cretinos, 3.60 aretoan

Bihar, zapatua, Arrasateko Los Cretinos eta Gasteizko Obligaciones taldeek kontzertua egingo dute 3.60 aretoan (lehenago Bertize disko-tekano), 22:30ean.

Los Cretinos taldeak zeresana eman du azkenaldian. Izan ere, Danbaca Debagoieneko I. Musika Lehiaketarako sailkatu zen, eta ibarreko eta Gasteizko hainbat aretoan egin ditu kontzertuak. Gogor dabil Arrasateko rock-and-roll taldea, eta, gainera, bihar badu zer ospatu...

Obligaciones taldea aspaldi sortu zuten Gasteizko gazte batzuek. Poliki-poliki instrumentuak jotzen ikasi eta 1997an punk-rocka egiten hasi ziren. Handik gutxira, *Obligaciones* izeneko diskoa grabatu zuten. Taldeak berak kaleratu zuen. Horren ostean, Mil A Gritos diskoetxeak *Rápido y sucio* lana kaleratu zuen, eta, orain dela gutxi, *Prueba a gritar, prueba a llorar* diskoa argitaratu dute, Madrilgo Zero diskoetxearekin.

Hala ere, Obligaciones taldeko gitarra jotzaile Pelak aditzera eman digu beste disko bat grabatu dutela: "*Prueba a gritar... rock-zaleagoa* zen, baina orain grabatu duguna punkagoa da. Azkeneko beste lanak bezala, honako hau Gasteizko Canibal estudioan grabatu dugu. Dagoeneko hasi gara diskoetxe bila, beste aukera batzuk aztertu gura ditugulako".

Taldekoek beste proiektu batzuk ere badituzte: Gramones —Ramones taldearen kantuak jotzen dituzte—; Las Novias y las Hermanas de Obligaciones; Sonic Revolution —Señor No taldeko Xabi eta Mikelekin, Guantxekin...



Oso aktore ezagunek hartzen dute parte *Ocean's twelve* filmean.



Argazkian, Uribarriko erretiratuen elkarteko aitona eta amona: Faustina Barquero eta Jose Manuel Arriola.

OMENALDIA/ Uribarriko zaharrenek bazkaria egin zuten

Uribarriko 80 urtetik gorakoei omenaldia

IKER BARANDIARAN

Urtero moduan, Uribarriko elkarteak omenaldia egin zien 80 urtetik gorakoei. Martitzenean egin zuten, eta 30 lagun batu ziren. Gizonezko zaharrenari —Jose Manuel Arriola— eta emakumezko zaharrenari —Faustina Barquero— aipamen berezia egin zieten.

Uribarriko erretiratuen elkartean ohitura dute 80 urtetik gorako bazkideak urtero omentzeko. Hala egin zuten martitzenean. 30 lagun batu ziren. Horietatik 13 emakumezkoak eta 17 gizonezkoak. Egundoko bazkaria egin zuten. Besteak beste, urdaiazpikoa, arrain-zopa, erredondoa saltsan eta kanutilloak jan zituzten. Eta apetitu onarekin ikusi genituen han batutakoak.

Bazkalostean, jotak jarri zituzten eta hainbat erretiratutak kantuan egin zuten. Behin kafea eta kopak edan eta zigarro puruak erre ostean, Uribarriko elkarteko batzarrak opariak banatu zituen. Baimurako gela, usain-kengarrria eta kromak eman zizkieten omenaldutakoak. Gastara asko harrera zituzten opariak. Horren ostean, Uribarriko bi

bazkide zaharrenek omentu zituzten: 89 urte bete dituen Faustina Barquero, eta 88 urte bete dituen Jose Manuel Arriola, hain zuzen ere. Faustinari lore-sorta ederra emar zioten, eta Jose Manueli larruzko gerrikoa eta galtzerdiak.

Ezagun da Jose Manuel Arriola udaltzain ohia bertsoan oso iaioa dela, eta lagunek hala eskatuta, bat-bateko bi bertso bota zituen.

Uribarriko gizon zaharrenek, Jose Manuel Arriolak, bat-bateko bertsoak bota zituen

Auzoko emakume zaharrenek, Faustina Barquerok, eskerrak eman zituen

LUZE BIZI IZATEKO SEKRETUA

Bestalde, Uribarriko erretiratuen elkarteko bi lagun zaharrenean jo genuen, luze bizi izateko sekretua zein den jakiteko asmoz.

Jose Manuel Arriolak honako hau esan zigun: "Ez dakit zein den luze bizi izateko sekretua. Aspaldian denbora luzea daukat horren gainean ikasteko, baina oraindik ez dut asmatu. Hala ere, inguruko guztiei eta batez ere emazteari zor diet 88 urte bete izana, oso ondo zaintzen nautelako". Eta honako hau gaineratu zuen: "Aspaldi lagun batek esan zidan 40 urtetik aurrera urteak egitea oparia zela. Lagun hura 47 urterekin hil zen, baina neu, berriz, bizirik nago oraindik, eta opari asko jaso ditut".

Faustina Barquero ere oso sasoi onean ikusi genuen, eta oso pozik zegoen egin zioten harrearekin. Baina hark ere ez digu sekreturik kontatu gura izan: "Ez dut ezer berezirik egiten urteak hartzeko. Lasai bizi naiz eta denetik jaten dut, arukrea izan ezik; ez zait komeni. Oso pozik nago egin dugun egunpasagatik, eta lagunartean oso gustura egon naiz".

Nagusilan elkarteak kontzertu batekin ospatu du urteurrena

I.B.

Arrasateko Nagusilan elkarteak bi urte bete ditu premia duten erretiratuei laguntzen. Eta, urteurrena ospatzeko, joan den egunean kontzertua izan zen Iturbide egoitzan: Jose Mari Soroak eskaini zuen.

Nagusilan elkarteko arduradunak pozik daude egindako lanarekin. Dagoeneko bi urte pasa dira Arrasaten lanean hasi zirenetik. Hainbat erretiratu-boluntario elkartu eta premia duten beste erretiratu batzuei laguntasuna ematen diete. Horretarako, Iturbide egoitzara, Aita Mennira eta bizilekuetara jotzen dute.

22 BOLUNTARIO LANEAN

Joan den urtean, esaterako, Arrasateko Nagusilan elkarteko boluntarioek 22 lagun dira—4.235 ordu egin zituzten zeregin horretan, hau da, erretiratuei laguntasuna ematen.

Gipuzkoako Nagusilan elkartean 611 lagun daude, eta iaz, guztira, 121.336 ordu bete zituzten boluntario lanak egiten. Horrez gainera, telefono bidezko arreta telefonoa ere badute, eta doan ematen dute zerbitzua. Horrekin, lagun batzuek sufritzen duten bakartasunari aurre egin

gura diote. Honako hau da telefono zenbakia: 900 71 37 71.

BAKARTASUNARI AURRE EGIN

Helburua da aisialdirako denbora duten erretiratuek, boluntario moduan, bakarrik dauden edo premia duten beste erretiratu batzuei laguntasuna ematea. Horretarako, garrantzizkoa da boluntarioak trebatuta egotea. Arrazoi horregatik, Nagusilanek hainbat ikastaro egiten ditu. Datoren asteotan, beheraldi, antsietate eta demenzien gaineko jardunaldiak egingo dituzte.

Horrez gain, beste hainbat ekintza egiten dituzte. Elkartearekin harremanetan jartzeko, honako telefono zenbakira deitu: 943 79 25 85 (Tomas Atxa).

JOSE MARI SOROAREN KONTZERTUA

Joan den egunean, elkarteak kontzertua antolatu zuen Iturbide egoitzan. Jose Mari Soroa musikariak, gitarrarekin lagunduta, hainbat kantu abestu zituen. Horietako asko ezagunak ziren, eta han batutako 60 ikusleek ere gustura abestu zuten.


Jose Mari Soroa oso musikari umoretsua da, eta kantuen artean txisteak kontatu zizkion han batutakoak. Eta, zer esanik ez, Iturbideko egoiliarrek oso gustura hartu zuten ekimena.



LABUR

'Don Giuliano' Sagasta organo jotzaile eta abade arrasatearra hil egin da, Erroman

Julian Don Giuliano Sagasta Galdos Arrasaten jaio zen, 1914an. 19 urterekin Italiara jo zuen Teologia ikastera. Organo ikasketak bost urtean bukatu, eta 23 urterekin abade ordenatu zuten. Horrez gain, musikaren alorrean ibilbide handia egin zuen: 33 urterekin, Santa Maria La Maggiore basilikako organo jotzaile izendatu zuten, eta hainbat aita santuendako kontzertuak egin zituen. Noizbehinka Arrasatera etortzen zen senitartekoak eta David Artzamendi laguna agurtzera. Astelehenean, hilaren 31n, hil zen. Erroman, 90 urte zituela.



San Juan Bautista elizan organo jotzaile

EZETZASMATU



Super BM

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK.....

TELEFONOA.....

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Berberana urteko ardo beltza
75cl-ko botila

1,39€ 231 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

IÑAKI IRIONDOrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Iñaki!
Galderen erantzun zuzena:
Holiday.

Arrasateko zein enpresak komertzializatzen du Ternua marka?
Arrastoa: futbolarekin lotura handia du enpresa horrek.

ARRASATEKO HISTORIA

Arrasateko baserri auzoetako bideak (IX)

ARRASATEKO BASERRI... / G. ARZELUS

Udala eta Garagartza inguruan ibiliko gara bidez bide; San Andres ere bisitatuko dugu:

“Bide Zarra (Udala): Ez du aurrekoarekin zerikusirik, Udala auzoan baitago. *Bide Zarra* Dolara eta Arteta baserriak lotzen dituen bideari deritzo. Bengoa eta Dolara etheen bitartetik irten den bide hori bitan banatzen da, Larragain aldera eta Arteta aldera, alegia. Azken hori, Udalaraino daraman errepidera helzen da, Arteta baserritik gertu. Beherago jarraituz Sahatsa baserriira irits daiteke.

Bide Ziguire (Udala): Desagerituta dagoen Nebera edo Axpe baserritik gorantz irteten den sendabide edo bidezidor (*Bide Ziguire*) hori Jaiberriko txabolara helzen zen (hori ere jausita). *Bide Ziguire*, Goiko Basotik pasatzen zen, txabolara iristeko *Aitaburuko bidea* baino motzagoa zelarik.

Bizcay Bide (Garagartza, 1899): Garagartzatik Bizkaira zihoan bideari, *Bizcay bide* (1899) izena eman zioten garagartzarrek. Bide hark, Madarixako bidekurutzetik Karraskin eta Lejarazurantz hartzen zuen, eta handik, Larrazabal eta Besaide



Bizcay Bidetik Garagartzako produkturik tipikoena garraiatzen zuten: kipulatxoa, kipularen landarea, hain justu ere.

aldera. Behin Besaiden, Urkiolara edo Elorriora jotzen zuen.

Bizcay bidetik Garagartzako produkturik tipikoena garraiatzen zuten, kipulatxoa (kipularen landarea), alegia. Azken Gerra Zibila baino lehen (1936-1939) astoa zen garraio bide nagusia eta

Bostate bidetik aurrera doan bideak
Lezetxiki kobazuloraino eramaten gaitu

Durango kipulatxoa banatzeko zentroa. Ostiral gauerdia baino lehenxeago irteten zuten kipulatxo karabanek Durangorantz, mendiak zeharkatuz, Durango azokara zapatu goizaldean heltzeko. Merkantzia saldu ondoren, egun berean itzultzen ziren.

Ematen du oso aspaldikoa dela Garagartzan landare hori.

Bolinate Muna (San Andres, 1603, 1604, 1899): Aretxabaletara doan bidetik 100 bat m. ezkerrean, zubitxo bat igaroz, Boliñete izeneko errota zegoen. Inguruko garrantzitsuenetakoa omen zenez, baserri gehienak hara hurbiltzen ziren garia jotzera. Errota 1589 urtean zegoen martxan, baina 1965ean ULGORreko konplexu industrialia eraikitzeke bota zen.

Esan bezala, baserriarrek garia eramaten zuten bertara; zaila da aipatzen den bidea nondik zetorren jakitea. Hala ere, baserriarrek leku askotatik zetozenez, pentsa dezakegu hainbat eta hainbat norabide zutela; batzuek errotara eramaten zuten zuzenean eta, besteak, berriz, parean zegoen zubira.

Bostate Bide (Garagartza): *Bostate bideak*, *Bidegorri*arekin zerikusia duela dirudi (ikus *Bidegorri*). Bestalde, jausita dagoen Bostate baserritik 800 bat metro-ra, mendiska batean eta I, I-M norabidean San Bixenteko ermita zegoen. San Lorentzoko eta San Paulo ermitekin batera Garagartzako garrantzitsuenak izan zen, XVIII. mendean desagertu zen arte. Seguraski, bide honetatik baselizarako prozesioak egingo ziren”.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2005eko otsailaren 4a / 138. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otorla Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

'Limitaua'-ren jabetzak eztabaida piztu du berriro

UBANE MADERA

Elurraren eraginez, oraingo asteen egin dute joan den asteen egin beharreko ohiko batzarra, urtarrilari dagokiona. Besteak beste, Jon Agirrearen gaineko mozioa aztertu zuten.

Alkatearen argibideen artean, proposatu zuen 278 euroko laguntza ematea Eudelek bideratutako fondoari. Tsunamiarengatik kalteak erantzun bera ematea. Hau da, *Limitaua* Aramaiorena dela adie-

batzen Eudel elkarte. Era berean, alkateak jakinarazi zuen Otxandioko Udalak idatzi bat aurkeztu duela *Limitaua*-ren lursail batzuk direla-eta. Kontua da Aramaioko Udalak *Limitaua*-ren bide batzuetan konponketak egin zituela. Eta Otxandioko Udalak dio lursailak Otxandiorenak direla. Hortaz, Aramaioko ezin dute hain lanik egin. Hala, Aramaioko udalbatzarrari proposatu diote erantzun bera ematea. Hau da, *Limitaua* Aramaiorena dela adie-

raztea Otxandiokoei. Horren hari- ra, alkateak gaineratu digu bestelako hitzarmenik lortu ezean eta premia dagoen bitartean, Aramaioko Udalak *Limitaua*-n lanak egiten segituko duela.

Bestelako gaien artean, Arexolan bukatzekotan diren gasifikazio lanak berbagai izan zituen udalbatzarrak. Eta gazte lokalatik gertu apurtu den kale-argia dela-eta, udalbatzarrak erabaki behar zuen apurketa nork ordaindu behar dituen. Proposamena zen gazteek ipinitako fidantzatik hartzea konponketarako dirua.

Bestalde, eguneko zentrorra joateko garraioa dela-eta, emandako diru kopurua bikoiztea aztertze-ko zuen udalbatzarrak. 1.500 euro eman beharrean 3.000 euro eman. Kontua da bere garaian ez zutela laguntza behar bezala eskatu.

Horrekin batera, Jon Agirre- ren lagun eta senideek aurkeztu- tako eta EAJk eta Eak adostuta- ko mozioa landu zuten. Presoaren giza eskubideak errespetatzea eskatu zuten, besteak beste.

Bukatzeko, jakinarazi zuten Udalak galdu egin duela *Berria* egunkariarekin lotutako epaiket- ta. Sententziaren arabera, Uda- laren akordioa bertan behera geratzen da: 500 euroko laguntza eta 1.000 euro akziotan.



Udal teknikariek lurjausia ikusi eta seinaleztatu egin zuten, istripuak saihesteko.

Zenbait errepideren egoera ez da oso egokia

U.M.

Besteak beste, lurjausia izan da Zabolatik Untzillarako errepidean. Eta, oro har, errepide horren egoera eskas samarra da. Hori dela eta, zenbait herritar kexu dira. Udaletik esan digute jakinaren gainean daudela.

Joan den asteen izan ziren udal teknikariak errepidearen egoera ikusten. Orain, zer egin erabaki behar

dutela jakinarazi digute. Izan ere, konponketa soilak egin beharrean, aztertzen dabilta inbertsio handiagoa egin eta ea errepidea behar bezala konpontzeko aukerarik baduten.

Ibarratik Zabolara igotzeko bidearen egoera ere ez da ona, baina Udaletik jakinarazi digute hori Diputazioaren eskumena edo konpetentzia dela. Eta Aramaiotik Arrasaterako bidean zuhaitz batzuk jaustear daude. Baina hori ere Diputazioaren eskumena da.



Udalak galdu egin du *Berria* egunkariarekin lotutako epaiket- ta.

Otsailean izango da eskolan aurre-matrikulatzeko epea

U.M.

Eskolako zuzendari Paulino Ibbek jakinarazi digu otsailaren 14tik 25era izango dela aurre-matrikulazioa egiteko epea. Haur Eskola zerbitzuaren gainean, berriz, ez dute berririk.

Datorren ikasturteari begira, 13 ikasle berri espero dituzte San Martin Eskolan. Laster jakingo dute zifra zehatza, otsailaren 14tik 25era egin behar da eta aurre-matrikulazioa. Gero, ekainean egingo dute matrikula. Baina

datorren urteko proiektzioak- eta egiteko, derrigorrezkoa da aurre- matrikula egitea.

HAUR ESKOLAREN GAINEAN, EZER EZ

Hori, 2 urtetik gorako umeei dago- kienez. Izan ere, 2 urtetik be- hakoendako abiarazi nahi duten zerbitzuaren gainean oraindik ez dute berririk eskolan.

Eskolako zuzendariak esan digu zenbait guraso joan zaiz- kiela Haur Eskola zerbitzuaren- gatik galdezka. Eta, hori dela eta, eskolako ordezkariak udaletxera jo dutela. Hala, handik jasotako

erantzunaren arabera, aurre- kontuak onartu arte ezin izango dute ezer berririk jakin.

Gauzak horrela, Paulino Iba- bek esan digu eskolan kezkatuta daudela. Euren helburua da dato- rren ikasturtean eskaintzea Haur Eskola zerbitzua. Eta ikusten dabil- tza Udalaren erabakia dezente atzeratzen dabilela. Gogoratu beharra dago Udalak Aita Gabi- releko lokal bat erabili gura due- la Haur Eskolarako. Eskolak, berriz, eraikin berria nahi du, eskolaren gaur egungo eraikina- ren ondoan. Baina dirua arazo da.



2 eta 12 urte arteko ikasleendako da aurre-matrikulazio epea.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuiaiko Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaleak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

BARIKUKO ZINEMA, DOAN

Zeelanda Berriko Niki Caro zuzendariaren *Whale Rider* filma emango dute. Drama da. Gogora ekarri beharra dago gaurko saioa doan izango dela, zinema-saioen emanaldiek urtebete egin dutelako.

DOMEKAKO ZINEMA

Oraingo honetan, *Buzz Lightyear* filma aukeratu dute, umeendako. Marrazki bizidunak dira. 17:00etan hasiko da saioa.

KZGUNEAAREN ORDUTEGIA

Aramaioko KZGunearen arduradunak zera jakinarazi digu, otsailaren bi eguneko zabalduko dutela KZGunea: 7an eta 21ean, 16:00etatik 20:00etara. Hain zuzen ere, bi egun horietan bi ikastaro egin ahal izango dira: Interneteko eztabaida zerbitzuetan parte hartzen ikasteko ikastaroa (otsailaren 7an, 16:00etatik 18:00etara) eta ardoak ezagutzen laguntzeko ikastaroa (otsailaren 21ean, 16:00etatik 18:00etara). Horrekin batera, beste barrik Interneten ibili gura duenak ere zabalik izango ditu KZGunearen atak.

Gaur, Santa Ageda bezpera; bihar eta martitzenean, Aratusteak

U.M.

Santa Ageda bezpera izanda, gaur eskolako umeak eta Bizente Goikoetxea abesbatzako kantariak auzoz auzo ibili dira. Bihar, berriz, Aratusteen txanda izango da, mozorro lehiaketarekin. Martitzenean ere izango dira Aratusteak, eskolako eskutik.

Eskolako umeak taldeka banatu eta goizean ibili dira auzoetan. 14:00etatik iluntzera arte, berriz, abesbatzako kideen txanda izanda. Plazan hasi eta Matxain, Mendixola, Eguzkierripa, Arraga, Errotabarri eta Salgon ibili dira.

Santa Ageda bezperan kantuan eta eskean irtetea da ohitura. Hala, eskolakoek batutako dirua eskolako bidaiak eta barne-tegiak ordaintzeko erabiliko dute; janaria, berriz, jangelarako eta jolas-orduetarako. Bestalde, abesbatzak batutakoaren %50 Caritasi emango dio, eta beste erdia abesbatzan sartu diren gazteen gastuak ordaintzeko erabiliko dute. Janariarekin afaria egingo dute.



Eskolan mozorroak egiten ibili dira, euskal mitologian oinarrituta.

ARATUSTEAK, BI EGUNEZ

Eta bihar, Aratusteen txanda izango da. 17:30ean aterako da kalejira kiroldegitik eta 18:00etan egingo dute mozorro-lehiaketaren sari-

banaketa. Eguraldiak uzten badu, gero erromeria izango da. Bestalde, ohiturari jarraituz, eskolakoak martitzenean ere mozorrotuko dira, mitologian oinarrituta.

BOTEPRONTOAN/ Baleriano Ibane · Untzuetan landa-turismoa

“Gaur egun bidaiak handiak egin daitezke, prezio merkean; horrekin ezin da lehiatu”

Zabola bisitatu dugu, Untzuetan landa-turismoa hobeto ezagutzeko asmoarekin. Baleriano Ibabek hartu gaitu, eta genuen kuriositatea ase digu:

Noiz bihurtu zenuten baserria landa-turismoa?

Datorren San Juanetan hamar urte egingo ditu inauguratu genuela.


Badira urteak, askotan aipatzen den boom hura baino lehenago...

Bai, guk egin genuenean, Araban ez zeuden horrenbeste. Aramaion Murukoak egin zuten lehenengo, eta gero geuk.

Zer dela eta sartu zineten lan horretan?

Ni sukaldaria naiz eta hasieran leku batetik bestera ibili nintzen lanean. Baina gero nekatu egin nintzen. Baserrian ganadua kenduta genuen, hutsik genuen kan baserria, ania langabezia zegoen eta pentsatu genuen jatetxea ipintzea, baserri-turismoarekin batera. Obra egin behar genuenez, bada biak batera egitea pentsatu genuen. Orduan dirulaguntzak zeuden. **Jatetxea bai, baina landa-turismoa ere urte guztian duzue zabalik?**

Bai. Gabonetan-eta egun batzuetan itxi egiten dugu,



“Gure jarduera nagusia jatetxea da; landa-turismoa gehigarri bat da”

baina bestela irekita dugu, baita aste barruan ere.

Zer moduz funtzionatzen du?

Sasoi araberakoa da. Jai-egunetan, aste buruetan, oporretan, udan... dator jendea. Esan beharra dago guk bakarrik bi logela ditugula, hortaz ez gaitu kezkatzen landa-turismoa etorriko den jende kopuruak. Jendea etortzen bada ondo, baina bestela ez da ezer pasatzen. Gure jarduera nagusia jatetxea da, baserri-turismoa da gehigarri bat.

Turismoari begira, zer eskaintzen du Untzuetak?

Sukaldea. Hemengo generoekin egindakoa. Gure espezialitatea parrilla da: okelak, arraina... Etxeko postreak ere egiten ditugu. Eta ezagunak dira, adibidez, gure etxeko frijituak. **Bereziki nondik etortzen zaizue jendea?**

“Menu goxo bat: frijituak, esparrago beteak; itsas zapo txitxi-burruntziak eta etxeko flana”

Arrasatetik, Gasteiztik ere etortzen da jende asko...

Hori jatetxera; eta baserri-turismoa?

Hemengo jendea batez ere. Kanpotik ere etortzen dira, baina gehiena hemen inguruko jendea izaten da: Bilbokoak, Durangokoak, Donostiakoak...

Eta zer gustatzen zaie egitea?

Denetarik. Kanpoko jendea bada Donostiara, Bilbora... joaten dira. Azken urteotan, adibidez, Bilbora asko joaten dira. Handik hona ibiltzen dira.

Jende gaztea etortzen da batez ere?

Denetarik, baina 50 urtetik beherakoak.

Errepikatzen duenik badago?

Bai, baina batez ere jende berria etortzen da. Gaur egun bidaiatzeko eskaintza handia dago eta uste dut jendea kanpora joaten dela gehiago. Gaur egun bidaiak daude 600 euroren truke, abioi, hotel eta guzti. Horrekin ezin da lehiatu. Eta gu hasi gara hori igartzen. **Akaso baserri-turismoa erabiltzen da gehiago asteburuetarako-eta...**

Bai, eta beste turismo mota bat egin nahi duen jendearendako. Dena dela, lehen asko etortzen ziren hau merkeagoa zelako, baina orain...

ERRETRATUZHARRA

Santa Ageda
bezperan,
kantuan

Urtetan bizi-bizirik iraun duen ohitura bat Santa Ageda bezperan eskean irtetea da. Eta horren adibide da oraingo astean utzi diguten antzinako argazkia. Orain dela 40 bat urte ateratakoa dela kontatu digu gure berriemaileak, eta Muxibar ostean dagoela aterata, Oloste baserria zegoen lekuan. Gaineratu digu argazkian agertzen direnatariko asko falta direla gaur egun (hilda daudela), baina beste askok fin-fin segitzen dutela Santa Ageda egunean kantuan.

Beste barik, argazkian azaltzen diren kantarien izenak ipiniko ditugu. Hala, makurtuta, ezkerretik eskumara honakoak azaltzen dira: Juanito Untzueta, Pagoaga, *Eugenin*, Berezi-bar, Pedro Zumelaga eta Martinez.

Zutik, ezkerretik eskumara, honako hauek azaltzen dira: Oregi, haren atzean dagoena Adolfo da (burua bakarrik ikusten zaio), soinujo-lea, berriz, Karmelo Madinabeitia, haren ondokoa Okina da eta *Kurri* dator gero. Apur bat gorago Santi Altuna dago, haren ondoan Agirreu-

rreta, bien erdikoa (apur bat beherago dagoena) Maidagan da, eta eskumarruntz jarraituz, Angel Arana, David Artzamendi, Jose Mari Mendizabal, Oskar, Julito Iriondo, Felix Aiala *Felico* eta Angel Ezkurra azaltzen dira argazkian.

Bukatzeko, ezker-ezkerrean zutik dagoenetik hasi eta goranzko bideari ekingo diogu: izkinakoa Pedro Sologaistoa *Laso* da (argazkilari ezaguna), Jose Bereziabar dator gero, Iñaki Larrañaga ondoren, Kandido Artola (eskuak gurutzatuta), *Mallabi*, Jesus

Barrutia, Andoni Axpe, Javier Zubizarreta eta Eugenio Gallastegi.

Argazkia eta informazioa: Tere Etxebarria
Urtea: 60ko hamarkada ingurukoa.



Laso

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Zalduspeko
zubiak bost
urte pasatxo

Zalduspeko zubiak sei urte egingo ditu datorren urrian, 1999an jarri zuten eta zubi hori. Zalduspe Osinaga izeneko pasealekuko bi aldeak lotzen ditu zubi horrek. Hain zuzen, 28 metro luze eta 4,20 metro garai da. Ia 55 milioi pezeta gastatu zituzten zubia egiteko, baina, zubiaz gain, Gamei enpresatik zubiraino doan espaloi berria ere egin zuten, ustez berdeguneekin.



≈ 1999 Eta ustez, diogu, gaur egun berdegune gutxi dagoelako inguruotan. Lantegi asko daude zubiaren bi aldeetan.



2005 Paseatzeko ondo dago, baina zubi horrek aukera ederra ematen die Zigorrolakoei ospitalera oinez joateko. Bestela, itzuli handia egin behar.



Txitxinpe

Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Garagardo ona, giro hobea



TXIRRITA

Taberna

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



PROFESIONAL *liberalak*

AHOLKULARITZA

ASEGI AHOLKULARIAK

Otalora Lizentziatua 4. Arrasate
Tel.: 943 71 25 49 Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

EMUN KOOP. E.

Uriburu 9, behea. Arrasate
Tel.: 943 71 18 47 Faxa: 943 79 34 26
emun@emun.com

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

Otalora 16, solairuarte, esk. Arrasate
Tel.: 943 79 51 25 Faxa: 943 71 19 85
uribesalgoe@euskalnet.net

ABOKATUAK

LIA ALTUNA BEGOÑA LASAGABASTER

Iturriotz 15, 1 A. Arrasate
Tel.: 943 79 98 86 Faxa: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

APAREJADOREAK

JUAN MARI OSINAGA

Zerkaosteta 17 behea
Tel.: 943 79 67 78 / Faxa: 943 77 10 09
zutarri@infonegocio.com


BITART

**Larraitz Ugarte
Maider Morras**

Nafarroa etorbidea 23
Arrasate
Tel.: 943 71 25 22 / 943 71 25 23
Poltsikokoa: 659 59 71 21

Matrikula epea 2005-2006

Haurtzaindegia - Haur Hezkuntza - Lehen Hezkuntza - D.B.H



Mesedeetako Andra Maria

IKASTETXEA

Tel.: 943 79 27 73

ARRASATE

